

OIARTZUNGO UDALA

UDALEKU IREKIAK OIARTZUN 2006 ZUZENDARIEN AUKERAKETARAKO OINARRIAK

Aurreko urtetan bezala, aurtengo uztaileko Udalak udaleku irekiak antolatu ditu Uztailan zehar Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako haur eta gaztetxoentzat.


Honen bitartez **ZUZENDARI** gisa lan egiteko eskaera egingo duten gazteen aukeraketa egiteko Udalak erabiliko dituen irizpideak jakinerazten dira, honako hauek izango direlarik:

DERRIGORREZ BETE BEHAREKO BALDINTZA:

Aisialdiko begirale tituluaren jabe izatea

KONTUAN HARTZEKO GAINONTZEKO IRIZPIDEAK:

1. Zuzendari tituluaren jabe izatea, honako balorazioaren arabera:
 - Zuzendari agiria: 6 puntu
 - Atal teorikoaren agiria: 3 puntu
 - Gehienez 6 puntu emango dira atal honetan
2. **Euskara maila:** EGA agiria dutenei 3 puntu emango zaizkie. Euskaldun zaharrei edota euskaldunberriei (10.urratsetik gora) puntu 1.
 - Gehienez 3 puntu emango dira atal honetan*
3. **Heziketarekin harremana duten ikasketak izatea** (Magisteritza, Pedagogia, Psikologia, Gizarte Hezkuntza). Honako balorazioaren arabera:
 - Lizenziatura 3 puntu*
 - Diplomatura (edo unibertsitateko 3 ikasturte osoak gaindituta izatea) 2 puntu*
4. **Esperientzia** edukitzea:
 - a. Udaleku-kanpaldietan zuzendari bezala. 0,50 puntu udaleku edo kanpaldi bakoitzarengatik.
 - b. Udaleku-kanpaldietan begirale bezala. 0,25 puntu udaleku edo kanpaldi bakoitzarengatik.
 - Guztira, gehienez, 5 puntu emango da atal honetan*
5. Aisialdiko eskolek antolatutako **espezializazio-ikastaro** bakoitzarengatik, 0,5 puntu.
 - Gehienez, 2 puntu emango da atal honetan.*



OIARTZUNGO UDALA

Hauek dira **zuzendariak** hautatzeko kontutan izango diren baldintzak. Irizpide hauen arabera, zuzendari izan nahi duten gazteei izena emateko epea, **martxoaren 6tik 22ra** arte irekiko zaie, eta haurren matrikulazioa ezagutu ondoren, beharrezkoak diren begiraleak hilabetez kontratatuzko proposamena egingo du Gazteria Batzordeak, hautatuak era honetan banatuta:

- Haur Hezkuntzako 10 ikasleko begirale bana.
- Lehen Hezkuntzako 12 ikasleko begirale bana.

Hautagai bakoitzaren puntuazioa ezarri eta gero, berdinketarik gertatuko balitz, heziketarekin harremana duten ikasketak eta esperientziaren atalak hartuko dira hurrenkera horretan, banan bana, irizpide gisa berdinduta gelditzen diren hautagaien hurrenkera erabakitzeko.

Kontutan izan beharrekoak:

1. Zuzendari bezala arituko diren bietatik bat zuzendari titulua izateko atal praktikoa egitea beharrezkoa duen batentzat gordeko da.
2. Aurreko egoeran dagoenik ez balego, biak hautaketa honetatik puntuazio gehien lortu dutenak izango dira.
3. Zuzendaririk aterako ez balitz, begiraleen artean aukeratuak izango dira.

Oiartzun, 2006eko otsailaren 28a.

GAZTERIA TEKNIKARIA